



BANAKAKO FITXA 14. AREA - "INDUSTRIALDEA. ERROTA"

1. DATU OROKORRAK

1.1. SAILKAPENA

Finkatu gabeko hiri-lurzorua.

1.2. KALIFIKAZIOA

B Jarduera ekonomikoak 15.305 m²
Espazio Librean Sistema Orokorra: 1.539 m²
Ekipamendu Sistema Orokorra: 101 m²

1.3. MUGAK ETA KOKAPENA

Planoetan finkatutako mugak, udalerraren iparmendebaldean kokatzen da.
Ipparaldean eta ekialdean Ori ibaiarekin egiten du muga, hegoaldean, 13. Arearekin eta mendebaldean GI-3.650 errepidearekin

1.4. AZALERA TOTALA

Arearen azalera totala honakoa da: 16.945m².

2. IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

Daude ibizitegi-eraikuntzen kontsolidazioa

3. HIRI EGITURAREN ARAUBIDEA

3.1. ERAIKIGARRITASUNA ETA ERABILERA

Egungo baldintzetan kontsolidatuko dira.

3.2. TOKIKO SISTEMA SAREAREN OINARRIZKO ARAUKETA

Dagoenaren kontsolidazioa.

4. XEHATUTAKO HIRI-ARAUBIDEA

4.1. ORDENATUTAKO PARTZELEN ERAIKIGARRITASUNA

Egungo baldintzetan kontsolidatuko dira.

4.2. ERAIKUNTZA, PARTZELA, ERABILERA ETA JABARIAREN BALDINTZA ARAUTZAILEAK

Atxikita dauden antolamenduko planoetan islatuko dira.

5. HIRIGINTZA EGIKARITZEKO ARAUTEGI ZEHATZA

5.1. PLANEAMENDU ETA JARDUKETA BALDINTZAK

6. HIRI-ANTOLAKUNTZARI GAINJARRITAKO BALDINTZAK

500 urteko periodoan , 100 urteko periodoan eta 10 urteko periodoan uholdeak jasan ditzakeen arearen eraginpean puntualki, 04 planoan marraztua.

Eremuak irailaren 30-eko 165/2008 Dekretuan onartutako lurzorua kutsa dezaketean jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen zerredan dago. Horrela, Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko 3/1998 Legearen 83 eta 84.2 artikuluetan ezarritakoari egokitu beharko zaio, baita otsailaren 4-ko, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legean ezarritakoari ere, bereziki, IV. Kapituluan ezarritakoari.

Area akustiko mota:

B.1. Industria-erabilera nagusia duten sektoreak (dauden industria areak).

Aplikagarriak diren kalitate akustikoko helburuak:

Area akustiko motak

zarata-indizeak



ANOETAKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA
PLAN GENERAL DE ORDENACION URBANA DE ANOETA
DOCUMENTO DE APROBACION DEFINITIVA

		Ld	Le	Ln
B. industria-erabilera	B.1. urbanizatutako areak	75	75	65

7. ERAIKIN EDO ELEMENTUEN KATALOGAZIO BALDITZAK

Iturzarraga errotak udalerrri mailako oinarrizko babesa du, bestalde, ustezko arkeologi.gunea da.